

Manufaktura-industriako ETEen digitalizaziorako sarrera



– Data eta ordutegia

Urriak 10, osteguna. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa

– Lekua

Euskadiko Teknologia Parkea - Gasteizko Campusa. Hermanos Lumiere, 11. 01510 Vitoria-Gasteiz

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

- Honako hauek ezagutzeko beharra edo interesa duten 10 langile baino gehiagoko manufaktura-industriako ETEentzat soilik:
 - digitalizazioak ekoizpen-prozesuan eta/edo kudeaketa-sistemetan duen potentziala.
 - nola ekin proiektu bati eremu horretan.
- Produktzio-prozesuko barne-digitalizazioko proiektuen kudeatzaileak, ekoizpen-zuzendaritzak, fabrikazio-zuzendaritzak eta profesional arduradunak.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Industria-digitalizazioaren esparrua ezagutzea, industria-arloko ETEentzat duen potentziala azaltzea eta enpresaren digitalizazio-proiektu bati nola ekin erakustea.
- Fabrikazio plantan produkzio-ingurunea digitalizatzearen potentziala, alderdi nagusiak eta jardun-arloak azaltzea.
- Kudeaketa-prozesuak digitalizatzeko aukerak eta abantailak erakustea, bai eta industriako ETEetan lotutako eta sortutako datuak ere.

Prestakuntzaren edukia

- Zer da digitalizazioa?
- Lantegi batean zer digitaliza daitekeen eta zer abantaila ekar ditzakeen bi arlotan:
 - produkzio-prozesuen eta makinen eremuan.
 - kudeaketa-/informazio-sistemen eremuan, eta horien integrazio bertikala eta horizontala.
- Nola heldu digitalizazio-proiektu bati tailer batean.
 - Etapa nagusiak.
 - Dauden metodologiak.
- Diagnostiko orokorreko ariketa (AFMren T1000 autodiagnostikoko metodoaren bidez).
- Hurbileko kasu praktikoak azaltzea.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEA: AFM.

Norekin



Ibon Serrano Lasa

IDEKOko proiektu-burua.

Gironako Unibertsitatean Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan doktorea eta Mondragon

Unibertsitatean Ingeniaria.

Lean Manufacturing delakoaren paradigman oinarritutako ekoizpen-sistemen birdiseinuan

espezializatua. Esperientzia handia berrikuntzan, I+Gtik eratorritako emaitzen ustiapenean eta zaintza teknologikoan eta adimen lehiakorrean. Gaur egun, Ingurumen Jasangarritasunarekin lotutako proiektuak koordinatzen ditu IDEKOn eta DANOBATGROUPen, eta digitalizazioak funtsezko protagonismoa hartzen du bertan.